

2024ko urriaren 8ko Herriko Kontseiluaren txostena

Hor zirenak: Sabine Etcheverry, Karine Perez, Maité Oxarango, Chantal Echevertz, Philippe Mongabure, Samuel Biscay, Hervé Parachou, Ramuntxo Oteiza, Kattalin Duhalde, Koxe Barbier, Virginie Sabaloue, Patrick Barneche, Frédéric Hernandez, Arño Gastambide

Ezin etorria jakinarazi zutenak: Anne Marie Darguy

1. Aurrekontu nagusiari buruzko aldaketa erabakia

INBESTIMENDUA

Gastuak		Irabaziak	
Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa	Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa
2111 (041): Lursail hutsak	128 661,00	27638 (041): Beste erakunde publikoak	128 661,00
Gastuak orotara	128 661,00	Irabaziak orotara	128 661,00

Harrietakoborda lotizamenduko aurrekonturako aldaketa erabakia

FUNTZIONAMENDUA

Gastuak		Irabaziak	
Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa	Artikulua (Kap.) - Operazioa	Zenbatekoa
605 (011): Material erosketak, ekipamenduak	-142 026,84	796 (043): Finantza-kargen eskualdaketak	1 270,25
608 (043): Lursailetarako gastu gehigarriak	1 270,25		
65822 (65): Aurrekontu gehigarriaren soberakinen ordaintzea	140 761,59		
65888: Beste	-5,00		
66111 (66): ordaindu interesak	1 270,25		
Gastuak orotara	1 270,25	Irabaziak orotara	1270,25

Dokumentu horretako 1. eta 2. puntuak Harrietakoborda eta Landaluxia lotizamenduetarako aurrekontu gehigarriak bururatu gabe pasa behar diren idazpenei doazkie. Puntu horiek Altxor Publikoak galdatzen eta kontrolatzen ditu. Beharko da atxiki aurrekontu-aurreikuspenak errespetatu direla eta horri esker abantzu pixka bat ukaiten ahalko dugu bizitegien alorrean inbestitzen segitzeko herritarrendako.

Herriko Kontseiluak puntu horiek guziak onartu ditu.

2. Etcheverry Dezest lursailaren eskualdatzea Landaluxia lotizamenduan

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio 2015eko azaroaren 4ko agiriaren arabera, LTEPk herriaren izenean eskuratu dituela herrian kokatu lurrak, kadastrako B 792 eta B 1429 lurrak, 4 704 m²-koak, 128 661€-ren truke. 8 urteko eramatea, 2023an bururatu dena.

Zehaztu du azken eramatearen ordainketaren ondotik, salmenta-agiria izenpetu dela 2023ko ekainaren 21ean.

Lursail horiek eraikuntzarako egokitu dira eta 4 zati egin dira, saldu direnak. Operazioa Landaluxia lotizamendurako aurrekontu gehigarriaren bidez egin da.

Etcheverry Dezest lursaila eskualdatzearen erregistratzeko proposamena 128 661€-ren truke eta dagozkien ordena-idazpen guziak pasatzea.

3. Antoneneko bidearen erregulartzea

Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio Antoneneko herri-bidearen zati bat zabaldu zela duela aspaldi jabe-eskualdaketa agiririk egin gabe.

Proposatu da menpean hartu 136 m²-ko bide zatia 5 €-ren truke m²-a erostea Philippe MARTINON jaunari, SCI SAGARDEA enpresaren ordezkariari, eta 285 m²-koa 5 €-ren truke m²-a Bittori eta Anne-Marie MARTINON andereei. Hots, orotara, 421 m².

Herriko Kontseiluak onartu du menpe hartu zati hori eremu publikoan sailkatzea.

4. Ipar Euskal Herriko LTEPrekin hitzarmena – “B1419 Herri barnearen” funts-eramatea

. Oroitarazteko:

- Bizitegien antolatzeke eta eraikitzeke proiektu baterako lursail zerga oinarria osatzeko xedez, Herriko Etxeak Ipar Euskal Herriko LTEPri dei egin dio ondoko lursailen erosteko (B1418 eta B1419). Kadastrako 1419 lursaila erostera entseatu ondoan lehentasunez erosteko eskubidearen bidez, jabea Ipar Euskal Herriko LTEPrekin jarri da harremanetan onez onean eta zuzenki negoziatzeko ontasun horren eskualdatzea. Negoziaketan ondotik onez onean hitzartu dute 118 000 €-ko prezioa.
- 2024ko apirilaren 18ko 20. deliberoaren ondotik, LTEPren Administrazio Kontseiluak aipatu lursailaren eskuratzea ontzat eman zuen.

Eroste horren kariatara, eramate-hitzarmen bat behar da finkatu Ipar Euskal Herriko LTEPren eta Aiherrako Herriko Etxearen artean eramate- eta kudeaketa-moldeak berresteko baita ere 118.000 €-tan eskuratu ontasunaren gibelera saltzea.

Ikusirik Herriko Etxearen xedeak eta esku hartze testuingurua, proposatu da 12 urteko eramatea aplikatzea urte sari bakoitz % 2,5 (BEZa gabe) eramate-gastuak aplikatuz ordaintzekoa den kapitalean.

Herriko Kontseiluak onartu du hitzarmenaren izenpetzea.

B1418 lursailaren salmentaren prozedura bidean da. Epaileak urri bukaeran finkatuko du prezioa Herriko Etxeko auzialdiaren ondotik, lekuak bisitatu ondoan.

5. Lurralde Hitzarmen Orokorren izenpetzea FaLKarekin

Jaun auzapezak oroitarazi du 2023ko otsailaren 27ko deliberoaren arabera, Herriko Kontseiluak Lurralde Hitzarmen Orokorra (LHO) izenpetu duela Familien Laguntza Kutxarekin (FaLK).

Oroitarazteko, LHO lurralde partekatu batean proiektu sozial baten eraikitzeke partaidetza-hitzarmena da, FaLKaren eta lurralde elkargoen arteko erreferentziazko hitzarmen berria, haur eta gazte kontratua ordeztan duena.

Zenbait urtetarako den ekintza-planak dira LHOak, eta partaideen animazioa behar dute, diagnostikoen apailatzea, proiektuak agertzeko laguntza eta hitzarmenaren bizitzaren segimendu iraunkorra. Hazparnealdeko herrientzat, Euskal Elkargoa eta herriak elkarrekin FaLKaren hitzarmenaren izenpetzaile dira, zerbitzu komun batek eraman lankidetzak plantan ezarriz.

2024ko ekainaren 15eko Elkargoko Kontseiluak aho batez berretsi du zerbitzu komun horren sortzea. Zerbitzu berri horretan 2 langile izanen dira, bat Errobi lurralde eremuko eta Hazparnealdeko LHOetarako ariko dena, bestea Errobi-Aturri eta Ipar Euskal Herri barnealdeko lurralde eremuetarako.

Herriko Kontseiluak onartu du zerbitzu komun horren kide izatea.

6. Berreskuratu ez daitezkeen produktuen baliogabetzea

Auzapezak esplikatu du Hazparneko andere diruzainaren partez errezibitu duela Aiherrako aurrekontu nagusiaren irabazi berreskuraezin bat, **1 960,05 €**-koa, eta baliogabetzea galdegin duela. Okindegiaren 2022ko alokairuari dagokio.

Baliogabetzeak ez du kentzen berantago produktu bat berreskura daitekeela zorduna berriz itzultzen baldin bada hori ahalbidetzen duen egoera batera.

Egoera horrek kezu handia sortu du Herriko Kontseiluan, eta afera justiziaren esku uztea pentsatzen ari da.

Zordunaren tituluak baliogabetzeko proposamena erregistratu du Herriko Kontseiluak.

7. 2024ko errepide obrak

2024ko urte hondarrean ginen den programaren estimatzea.

Larreburoko bidea (Indar bihurtunea):	5 346 €
Larreburoko bidea (Daragnes bidea):	3 161 €
Leixorrenoko bidea (garbitzea etxeari kontra):	3 468 €
Aguerebordako bidea (bidearen luzeran):	33 809 €
Abiadura-eztitzaileak Abarratiako bidean (Espertateko ondoan):	2 340 €
Arrontaeneko bidea (reverdo):	2 355 €
Lurreko markak (primaderan):	2 298 €
Orotara:	52 777 €

Oroitarazten da Departamenduak ez duela laguntzarik emanen errepideak berritzeko, beraz, esku hartzeko gaitasuna ttipituko zaigu.

8. Dirulaguntzak elkarteei - 2024

Dirulaguntza emateko proposamena	2024	2023	2022
Abarratia	800,00	800,00	700,00
Irulegiko Irratia	230,00	230,00	200,00
ACCA Lehena	280,00	280,00	250,00
Eskola Pribatuko Burasoen Elkarte	540,00	540,00	648,00
AIHERRAKO CATM – PG	120,00	120,00	120,00
Herria kazeta	300,00	300,00	250,00
Sos Laborari	250,00	250,00	220,00
Bidekoekin	230,00	230,00	200,00
Lurzaindia	350,00	350,00	300,00
Handisport Pays Basque	280,00	280,00	240,00
Izpindar	150,00	150,00	150,00
CIDFF	150,00	150,00	150,00
	3 680,00	3 680,00	3 428,00

2023an eman zenbatekoak atxikitzea proposatu da. Izan ere, 65. kontuan eragin handia dute 6. puntuan adierazi gastuek, eta 9. puntuko gastuen nahitaezko bilakaerak.

Herriko Kontseiluak 8. eta 9. puntuak onartu ditu.

9. Aiherrako eskola pribatuko IKKEri eta SEASKAri dirulaguntza

Kontratupean diren eskolei funtzionamendurako prezio finkoa	2024	2023	2022
Eskola pribatuko IKKE (775 € Aiherrako haur bakoitz)	17 050,00	15 200,00	17 040,00
Kantinako eta zaindegiko langilearen ordaintzea	2 800,00	3 250,00	3 000,00
Seaska (775 € Aiherrako haur bakoitz)	25 575,00	24 320,00	19 880,00
	45 425,00	42 770,00	39 920,00

Esleipenen kalkulua eskola horietan ibiltzen den hau kopuruaren arabera da bider herriarteko eskola publikoan eskolatu haur baten kostu prezioa (2021ean 675 €-koa zen eta 2024an 775 €-koa).

10. IEKA (Ibilgailu Elektrikoak Kargatzeko Azpiegiturak) eskumen-eskualdaketa TE64ri

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio Mugikortasuna Bideratzeko Legeko 68. artikulua posible egiten duela elkargoentzat edo erakunde publikoentzat "Ibilgailu Elektrikoak Kargatzeko Azpiegiturak garatzeko gida-eskema" (IEKAGE) baten egitea.

Pirinio Atlantikoetan TE64k du IEKAGE eraman, 10 hilabetez departamenduko eragile publikoetan eta pribatuetan bermatu ondoan eskema horren gauzatzeko, eta 2023ko azaroan jaun prefetak ontzat eman duela.

"Ibilgailu Elektrikoak edo Berriz Kargatzeko Ibilgailu Hibridoak Kargatzeko Azpiegituren" eskumena PIRINIO ATLANTIKOETAKO ENERGIA LURRALDEARI (TE 64) eskualdatzeko proposamena zerbitzu komun bat sortzeko horrelako ibilgailuetarako beharrezkoa den IEKA azpiegituren sortzeko, mantentzeko eta ustiatzeko, ekipamenduak elikatze beharrezkoa den elektrizitatea erostea barne hartuz.

Herriko Kontseiluak onartu du.

11. EGETBren herriko ordezkoren aldatzea (Eskualdatu Gastuak Ebaluatzeko Tokiko Batzordea):

- Arño Gastambide Samuel Biscayren ordezkari

12. Herriko dirulaguntzen ematea:

- Proposatuta da herriko dirulaguntza hauen ematea, Departamenduak eman dirulaguntzaren % 30:

➤ ETCHEGARAY Aurélien 33.00 €

Gai orotarik

Urriaren 11ko gaualdiaren antolatzea: mugaz gaindiko parekatzei buruz hitzaldia.

Urriaren 19 egunaren antolatzea: Antzuolako gure adiskideen errezibitza bi herrien parekatzearen 40. urtemuga ospatzeko.

Kontseilua baino lehen, IZPINDAR elkarteak bere jarduerak aurkeztu ditu (ikus haien webgunean).

Helburua zen pertsona pribatuak Ekindar enpresari kidetzea.

Bilkura 22:15ean bururatu da

Auzapeza, Arño Gastambide